



berria

EUSKAL HERRIA

| POLITIKA | EUSKARA | HEZKUNTZA | OSASUNA |

Euskorpora elkartera batu da EHU

Harridura eta kritikak eragin zituen elkartearen aurkezpenak, orain arte hizkuntza teknologian «erreferente» izan diren eragileak falta zirelako bertan, tartean EHUren Hitz Hizkuntza Teknologiako Euskal Zentroa.



Euskorpora erakundearen aurkezpena, ostialaren 10an. Berria.com / EOHU

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta independentearen alde, 2025 amaierarako 3.000 irakurleren babes ekonomikoa behar du BERRIAK.

Egin zure ekarpena





Arantxa Iraola

2025EKO APIRILAREN 1A - 12:00



Entzun

00:00:00 | 00:04:43



EHU Euskal Herriko Unibertsitateak berak egin du jakinarazpena, gaur goizean: Eusko Jaurlaritzak sustatu duen Euskorpora elkarteko bazkide da. Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordetzak eta Hitz Hizkuntza Teknologiako Euskal Zentroak izango dute tokia elkartean, eta beren «jakintza eta eskarmentua» eskaintzeko era izango dute horrela. Otsailaren 19an [aurkeztu zuten Euskorpora elkartea](#), Donostian, eta horren bidez Euskorpus egitasmoa bultzatuko dutela adierazi zuten Jaurlaritzako buruek, eta proiektuak adimen artifizialaren «iraultzara» eramango duela euskara. Harridura sortu zuen orduan elkarteko kideen artean ez ikustea hizkuntza teknologian «erreferente» izan diren hainbat eragile, EHUren Hitz Hizkuntza Teknologiako Euskal Zentroa bera, kasurako.

Kritikak ere aurki heldu ziren, aurkezpenaren hurrengo egunean bertan EH Bilduko bozeramaile [Pello Otxandianok deitoratu zuen](#) «metatutako jakintza eta ahalmenak» kontuan hartu gabe eratu izana elkartea. Salatu zuen, bestek beste, ez zutela aintzat hartu EHUKo Hitz ikerketa zentroa, «teknologia digitalen arloan aitzindari» izan den arren. Salatu zuen, baita ere, Langune Euskal Herriko hizkuntza industriren elkartek ere ez zuela ordezkaritarik elkarre berrian. Euskorpus aurkeztu zutenean Jaurlaritzako buruek nabarmendu zuten «lankidetza publiko-pribatuaren» emaitza dela. Erakunde hauek sartu zituzten hasieran: Vicomtech, Ereil Technologies, Trebe Language Technologies, Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza, Baleuko, Mixer, EITB, CAF, MCC, Petronor, Euskaltel fundazioa, Kutxabank, PWC eta Logikaline.

Elkartean beste eragile batzuk ere sartzeko eskea mahai gainean egon da hasieratik, eta Eusko Legebiltzarrera behin baino gehiagotan jo du EH Bilduk.

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta
independentearen alde,
2025 amaierarako 3.000
irakurleren babes
ekonomikoa behar du
BERRIAk.

**Egin zure
ekarpena**



eskea da, oro har, eragile teknologikoekin «batera» parte hartzeko hizkuntza teknologien proiektu irekietan.

Aurrez Aztiriak gaiari buruzko [galdera egina zion](#) Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburu Juan Ignacio Perez Iglesiasi, Eusko Legebiltzarrean bertan. Euskorporako ateak irekitzen joateko asmoa adierazi zion hark: «Ateak zabal-zabalik daude zuk aipatu dituzun eragile horiek parte hartu ahal izateko».

Ekarpen «handia»

Gaur, EHU Euskorporan egongo dela jakinaraztearekin batera, Hizkuntza Plangintzarako Errektoreorde Igone Zabalak gogora ekarri du unibertsitateak elkarte horretan egin dezakeen ekarpen «handia». Unibertsitateko iturriek adierazi dute ekarpena guztiz aintzat hartzekoa dela, alorrean duten ezagutzagatik ez ezik, baita hamarkada hauetan aurrera eramanez duen «corpusgintza lanagatik ere». «EHUk eragile aktiboa izan behar du euskarazko corpusaren garapenean eta ustiapenean eta, horretarako, urrats garrantzitsua egin du Euskorpora elkarteko kide eginda», nabarmendu du Zabalak.

Hitz zentroko zuzendari Eneko Agirrek ere gogora ekarri du ahotsezko eta idatzizko corpus irekiak biltzen eta lantzen egiten duten lana, eta hor egin dezaketen ekarpena. «EHUk euskarazko hizkuntza teknologia hizkuntza nagusien pare jarri nahi du abangoardiako ikerkuntzen bidez. Horretarako, ezinbestekoa da corpusak lantzeko estrategian asmatzea, eta horretan ere lagundu nahi dio Euskorporari». Hitz zentroa, besteak beste, [Latxa hizkuntza eredu](#) entrenatzen ari da, eta nazioartean itzala dute egin dituen aurrerabideek.

GAIAK

Euskara eta hizkuntzak

Euskara

Euskararen egoera

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta independentearen alde, 2025 amaierarako 3.000 irakurleren babes ekonomikoa behar du BERRIAk.

Egin zure ekarpena



Kazetaritza propio eta independentearen alde

Desinformazioa nagusi den garai hauetan, euskaldunoi informazio fidagarria libre ematea da BERRIaren egitekoa. Eginkizun horri eusteko, ezinbestekoak dira egunkariaren independentzia ekonomikoa eta editoriala. 2025 amaierarako, 3.000 irakurleren babes ekonomikoa behar dugu.

Egin zure ekarpena

IRUZKINAK

Ez dago iruzkinik



Iruzkin bat egin

ORDENATU

DATA



aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta independentearen alde, 2025 amaierarako 3.000 irakurleren babes ekonomikoa behar du BERRIAk.

Egin zure
ekarpena



INTERESGARRIA IZANGO ZAIZU



Urkulluren fundazioko patronatukideak: Iberdrola, Petronor, BBVA eta Kutxabankeko buruak

XABIER MARTIN



Japoniako autogileak, arriskuak hartu beharrean

JOSEP SOLANO



Mertxe Sueskun: «Dibertitzeari uztean, orduan utziko dut eskultura»

UXUE REY GORRAIZ


BERRIaren albiste

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta
independentearen alde,
2025 amaierarako 3.000
irakurleren babes
ekonomikoa behar du
BERRIAK.

**Egin zure
ekarpena**





- buletina
- Goizeko buletina
 - Arratsaldeko buletina
 - Kinka
 - Mendia
 - BERRIA Ikasgela
 - Kazetaritza ardatz

HARPIDETU

Udan kazetaritza praktikak
egin nahi dituzu **BERRIA**n?

NABARMENDUAK




Agurne Gaubeka:
«Euskara ofizial
izate hutsak ez du
ezer konpontzen»



Ospakizun egun bat
eta erronka kolosal
bat

IOSU ALBERDI

«Guk ez dugu izan
Jaurlaritzaren
babesik: ez orduan,
ezta 30 urteren



'Eu
itx
MIKE

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta
independentearen alde,
2025 amaierarako 3.000
irakurleen babes
ekonomikoa behar du
BERRIAk.

**Egin zure
ekarpena**



Harpidetu Berriaren buletinetara

Mendia

Arratsaldekoa

Goizekoa


Badok

Astekaria

Kinka

Kazetaritza

Izena ematean pribatutasun politika onartzen duzu.



Zure posta elektronikoa

Harpidetu

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta
independentearen alde,
2025 amaierarako 3.000
irakurleren babes
ekonomikoa behar du
BERRIAK.

**Egin zure
ekarpena**

